

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Miren Odriozola Jaio

*Ajangiz,
Bizkaia
(1919-2013)*

Aurkibidea



Biografia



Kanpantxu auzoko Errotabarrin munduratu zen 1919. urtean. Gurasoak ere bertakoak zituen: ama Urretxakoa eta aita Mentzetakoa. Bederatzi neba-arrebatatik bosgarrena izan zen, eta gerra garaian nebak frontean zituela (horietako bat hilda zuertatu zen) eta aita kartzelan zuela, etxeko martxa hartzea egokitu zitzaion eta bera aritu zen errotan beharrean. Hori dela-eta, errotako kontu eta zirrikitu guztiak ezagutzen ditu eta horietako asko kontatu zizkigun. 27 urterekin Muxikako Txakale auzoko Errekatxogoikoa baserrira ezkondu zen eta bertan bizi izan da ordudanik; hiru seme-alabaren ama da.

Zintak

AJN-002

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-09-21
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

AJN-003

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-09-21
- **Iraupena:** 73 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Aita kartzelara

- **Erref:** AJN-002/003
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:02:51. **Bukatu:** 00:06:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Bere aita EAJkoa zelako atxilotu zuten. Edozer esaten nahikoa ei zen preso sartzeko. Atxiloketa-prozesua zelan izan zen dakar gogora. Berez, auzoko batek eman behar izan zion aitari kuartelera aurkezteko errekadua, baina ez zion eman. Basoan zegoela atxilotu zuten. Mirenek 18 urte zituen eta ez zen ikaratzen.

2. Kuarteletik kartzelara

- **Erref:** AJN-002/004
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:06:36. **Bukatu:** 00:07:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra Zibilean bere aita atxilotu eta kuartelera eroan zutenean, lehenago alkatea izan zena ere bertan aurkitu zuen. Guardia zibilak ezagunak izaten ziren, karta-jokoan baserritarrekin aritzen ziren-eta. Hala ere, ez zieten tratatu hobea eman. Trenean eraman zituzten Indautxuko (Bilbo) ikastetxe batera Larrinagako kartzelara sartu aurretik.

3. Aitarene epaiketa

- **Erref:** AJN-002/005
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:11:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerratean aita atxilotu eta Bilbora eraman zuten epaitzera. Herriko beste gizon bat bere aginduz hil izana leporatzen zioten. Jende asko joan zen epaiketara eta orduan gertatutakoak kontatzen ditu pasarte honetan. Heriotza-zigorra ezarri ez eta urte eta erdi egin zuen preso.

4. Aita kartzelan eta miaketak etxean

- **Erref:** AJN-002/006
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:11:21. **Bukatu:** 00:14:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerran aita atxilotu eta urte eta erdiz egon zen preso. Oraindik 10 urtetik beherako hiru ume zeuden etxean eta aurrera egin beharra zegoen. Ama asko ikaratzen zen, baina Miren ez. Beraien etxea errota ere bazen eta prezintatuta izan zuten. Behin miatzera etorri zen Guardia Zibila, baina ez zuten ezer ere aurkitu. Beste behin, guardia zibilak agertu zaizkien etxean ea ehotzen zuten galdezka. Amak baietz erantzun zien, baina Mirenek amak ez zekiela erdaraz argudiatu zuen. Hala ere, ez zitzaien ezer gertatu.

5. Errotari zigilua kendu, gauez ehotzeko

- **Erref:** AJN-002/008
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:15:04. **Bukatu:** 00:16:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Gerra Zibilean errotak prezintatu egin zituzten. Beraien etxeko hiruak ere horrela zeuden, baina laster topatzen zuten zelan eho: zigilua sikatu baino lehen kentzen zuten, gauean eho ahal izateko. Gernikaldetik bakarrik ez, Bilbo aldetik ere etortzen zen jendea. Atxuriko geltokian irina kentzen zioten jendeari; horregatik, kantinetan-eta ezkutatzen zituzten bestelako jeneroagaz tapatuta.</p>

6. Errotako menda entregatu behar

- **Erref:** AJN-002/009
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:16:44. **Bukatu:** 00:18:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Baserriko jeneroa herrira entregatu behar izaten zuten, bakoitzak zuena. Errotek ehotzen zutena kartillan apuntatu behar izaten zuten. Apuntatutakoaren menda, ehuneko hamarra, errotariak herrira entregatu behar izaten zuten zen.

7. Herriko idazkaria lagun, ehotakoa entregatzetik libratu

- **Erref:** AJN-002/010
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:18:11. **Bukatu:** 00:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>1943. urtean denborale txarra egon zen. Baserri askori teilatua apurtu zitzaien, baina beraiena ondo mantendu zen. Galera posible hori aintzat

hartuta, berak etxean zuten jenero guztia ehotzea pentsatu zuen, diru asko lortu zezakeelako, horrela aitari dirua kartzelara eraman ahal izateko. Ehotakoa herrira entregatu behar izaten zuten eta, herriko idazkaria bere laguna zenez, harengana joan zen irina saldu eta aitarentzako dirua lortu nahi zuela esanez. Besteei, oster, denboralearen ondorioz dena galdu zutela esan zien.

8. "Ya no se existen Mirenes"

- **Erref:** AJN-002/011
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:22:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Bere neba itsasoan egon zen urte askoan, baita gerra garaian ere. Beregana Pasaiara (Gipuzkoa) joateko salbokonduktoa eskatzen joan zenean Gernikara, datu pertsonalak galdetzerakoan "Ya no se existen Mirenes" erantzun zion bertan zegoenak.

Transkripzioa

Neba bat euki gendun berrogeta zazpi... berrogeta sei urte ein zittuen [...] barku baten. Harek... [...] makilleruen bandan. Ta ez zan etorten sekula baten be. Orduen ez ekixen nundik nora zan be. Baia gero honek sartu zienien, badakizu, berak be ez eban jakin harek gu hil ala bizirik gauzen, ze Gernika bonbardeauta izen zan lez ta. Ta bota oskun errekadue: bizi bagara, juateko. Birriten pentsau be ez. Juan Gernikara salbokonduktoa ataaten, ta salbokonduktoa ataatera jua naizenien —salbokonduktoa biher izeten zan... Ta, ganera, oniño trenien ezin zeikien jua, ze hori oniño libretako euen hori alderdixoi ondiño. Kostaz. Ta kosta... Hamen orduen [baserrixen] ez zan [...] kotxerik bape. Ba, badakizu zer? Baiña ez naben pentsau ezebe txarrik. Ataa naban, ta jua nitzen ta. Geu [...] bertan, Gernikan, badakizu, gaztiekin ibiltten zara beti ta, geu gazte ta. Mutil bat, Gernikakue, ezautzen gendun ondo, ta berak ni be bai. Baia erderaz esan osten: "¿Cómo te llamas?", "Ez dakizu ala —nik esan— Miren nazena?". Badakizu ze kontestaziño emon osten? "Ya no se existen Mirenes" esan eusten, "Ya no se existen Mirenes". Ta nik gehixau kontestau be ez. Baia emon osten salbokonduktoa.

9. Auto-stopean Pasaiaraino kapitain bategaz

- **Erref:** AJN-002/012
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:22:45. **Bukatu:** 00:25:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Gernikan salbokonduktoa atera eta Erreteria auzora joan zen auto-stop egitera nebarengana joan ahal izateko. Donostiara zihoan militar kapitain batek hartu zuen eta Pasaiairaino, (Gipuzkoa) neba zegoen porturaino, eraman zuen Miren.

10. Itsasoan kanoikada batek hil zuen neba

- **Erref:** AJN-002/014
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:26:58. **Bukatu:** 00:29:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

Bere neba gerra aurretik hasi zen bakailao-ontzietan lanean. Gero kanoiekin jarri zuten Galerna izeneko ontzi hori, gerrarako. Beste neba bat Sotaren ontzi batean sartu eta bertan hil zuten. Ez zuten beraiekin komunikaziorik, ezinezkoa zen gutunak batetik bestera ibiltzea.

11. Gernikako bonbardaketatik salbu

- **Erref:** AJN-002/016
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:30:17. **Bukatu:** 00:33:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gernikako bonbardaketan parte hartu zutenek mapa ona zuten: Guardia Zibilaren kuartela eta arma-lantegia ez zuten bota. Bere ama astelehenero joaten zen plazara, baina egun hartan mugimendu arraroak zeudenez ez zen joan. Etxetik ikusi zituzten hirunaka-hirunaka zetozen aireplanoak eta erasoak. Ehiza-hegazkinek oinez zihoazenak erasotzen zituzten.

Transkripzioa

- Gernika bonbardeon etzut esan baiñe aslehena (...) Gernikan astelehen goxien gero berdin hasi zien, berdin hala goxien etorte zien. Abioiek harek ikusten egon zien, ze mapa ona euki ban harek eta; ze Guardia Zibillen kuartela ez zebeñ bota ba, arma armaixe bauan Gerniken orduan ha be ez euen apurtu; asiske, mapie ona. (...) harek goixen baie, goixi ibilli zien harek han ta. Akordu gurien ama bendajejuate zan astelehenetan, ha famoso izen da Gernikan astelehenetan. Gaur be bada asto gañien juate zan baiña igandegaz juate zan laguntze geuntzen errotan. Ta ordun goixien hain etxure txarra hartzen eutzen guk zeraka atzera ta aurrera ibiltzeaz, ta esan eutzan amari "ama ez da juañ biher hau Gernikara" esan neutzien. Aitte han eutzien danok ta "ezta juañ biher" esan noutzen ze horrek eh zouzer (...) txarra dabil hemen ta. Ai geure berde inguruen hasi zien, hirune-hirune etorte zien Vitorixetik etorte zien hirune-hirunin etorte zien, bakoitzen hiru etorte zien ta gero "Casakoak" esate zien ta geure txikixek holantxe bajatzen goittik-beherade. Behian arrapatte ittuñak kanpoan hiltze eben ta kitto! Horrek gogorak izen zan denporie, osa iñori ez dot

desieu hamendik paseu gendune pasetarik. Gogor- gogorra zan ha. Ta gauze bat dekot trankille, iñori ez gentzela eiñ, iñorri ezerrik pez; ez arazorik todo lo contrario ,mesede itteko prest (...) nik urune ixo naben, konprata neitzien egixe esanda. Baiña bat baiño gehixau etortzen jakuzen, sakutxo bat zan gero pagetako be emoten netzien nik urune be, baiña iñok ez dau esan ga gurien, ze esangot ba... jan bizate zan ta.

- Ya,ya. Ta zuek bonbardeoan eh etxeko danok ondo egon ziñen orduan?

- Ez giñen Gernikara joan orduen, kasualidadie ez giñen juan.

- Ta familiakoak ta auzokoak ta?

- Euzoak bertan, euzokorik ez zan hil baie Gernikan asko hil, asko. Ze Gerniken baakizu, astelehena zanak aproposalose egune pentsaute izengo ha, astelehena lau, astien Gernikan gehixen dabillena. Orduen bendaje itzelak bazan ta, bai hil zien baserrittarrak. Horko auzokoa be, (...) bidien hortxe ttikixek (...) zien ta.

- Ze auzoko, ze auzoko diñozu hil bela?

- Hemen goixan auzoko bat ezkondata euana Arratzu, ta gero bidien doala Arratzu antza, karo (...) bidien doala etxerantz holaxe izen, danak kasakaz danak zuzen-zuzen goitti behera ta gero danak hil. Eske itzela izen zan.

- Baiña zuek handik ikusiko zenduan Gernika, ezta?

- Guk ikusitxe claro ikusten gendule [...] Baiñe zeuk ikusiko zendun etorten ikuste zuzen ta botaten dena, suten jarri zan gero Gernika ta hor sute usain gero dana, ta segiduen hiru etorri- hiru jua, hiru etorri dana kontinuo zien, harek kontradixorik ez zauen euki tte. Besteik ez zauen, haren kontra eitteko ezer ta, harek como Pedro por su casa ibilli zien. Orduen guk pasa gendun gauze gogorra, pase genduen guk. Baiñe beittu hementxe gauz ta billurrik be eztekou.

12. Ama bonbardaketa ostekoa garbitzera behartua

• **Erref:** AJN-002/017

• **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:33:49. **Bukatu:** 00:34:46

• **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

• Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gernika bonbardatu ostean dena suntsituta gelditu zen. Emakumezko asko bertako zikinkeriak-eta garbitzera behartu zituzten, Mirenen ama horien artean.

13. Bizkargira armak eroan eta hildakoak bajatu

• **Erref:** AJN-002/019

• **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:36:34. **Bukatu:** 00:38:36

• **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

• Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gernika bonbardatu ostean bere ama beste hainbat emakumerekin batera eroan zuten bertako zikinkeriak garbitzera. Beraien aita, oster, behiak buztartu eta gauzez Bizkargi mendira, frontea zegoen tokira, armak eroaten zituen. Handik behera hildakoak bajatzen zituzten.

14. 15 kintal entregatu beharrean hiru

- **Erref:** AJN-002/021
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:39:39. **Bukatu:** 00:43:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerraostean, baserritarreko etxeko jeneroa entregatu behar izaten zuten herrian. Behin patata pilo bat atera zuten eta 15 kintal (750 kilo) entregatu behar izan zituzten. Baina Mirenek lortu zuen gezurra esanda gutxiago entregatu behar izatea, hiru kintal (150 kilo) baino ez zituzten entregatu behar izan.</p>

15. Kintala eta anega

- **Erref:** AJN-002/023
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:43:49. **Bukatu:** 00:44:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Kintalak 50 kilo balio du eta patata, garia, artoa... neurtzeko balio zuen. Anega ere 50 kiloko neurria da eta indaba, irina... neurtzeko erabiltzen da.

16. Errotako "mendie"

- **Erref:** AJN-002/024
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:44:49. **Bukatu:** 00:48:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Errotariak bezeroari ehotakoaren ehuneko 10 kentzen zion, hori zen beraiek kobratzen zutena; "mendie" esaten zaio zati horri. Menda zela-eta, bezero batekin gertatutakoa kontatzen du.</p>

17. Gari errota vs arto errota

- **Erref:** AJN-002/026
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:49:30. **Bukatu:** 00:50:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Gari errota eta arto errotaren arteko desberdintasunak aipatzen ditu pasarte honetan Mirenek. Errota</p>

18. Errotaren funtzionamendua

- **Erref:** AJN-002/027
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:50:33. **Bukatu:** 00:52:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Errotak zelan funtzionatzen duen azaltzen du pausuz pausu.

19. Argia uraren indarraz

- **Erref:** AJN-002/029
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:54:04. **Bukatu:** 00:55:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Beraien etxetik pasatzen zen errekarari esker argia ere lortzen zuten. Hori dela-eta, Mirenek beti ezagutu du argindarra etxean.

20. Eskailera batekin uriolak zeharkatu

- **Erref:** AJN-002/032
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:59:57. **Bukatu:** 01:03:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Gabon bezpera batean oso eguraldi txarra egon zen eta aita kartzelan bisitatu ostean etxera bueltatu zen. Gernikatik etxerantz oinez zihoala, ez zen aurrekorik ere ikusten. Senitarteko batzuen etxean farola eskatu eta aurrera egin zuen, baina ezin izan zuen zuzenean etxera joan uriolak (uholdeak) zeudelako. Eskailera handi batekin zubi bat egin eta etxera heltzea lortu zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com